

# GARIZUMAKO LEHEN IGANDEA B

Lehen irakurgaia

( *Jainkoak batasun egiten gizonarekin* )

**Etorki liburutik**

**9, 8-15**

Uholde ondoan,

- 8 **Jainkoak erran zioten Noeri eta haren semeeri:**  
9 **“ Huna: batasuna egiten dut nik zuekin eta zure ondokoekin,**  
10 **eta zuekin ditzuzuen bizidun guziekin,**  
**hegazti, abere eta lurreko ihiziek,**  
**untzitik atera eta lurrean bizi diren guziekin.**  
11 **Nere batasuna egiten dut zuekin:**  
**ez duela uholdeak berriz bizidunik hondatuko,**  
**eta ez dela gehiago lurra suntsituko duen uholderik izanen.**  
12 **Jainkoak erran zuen ere:**  
**“ Hau da nere eta zuen artean, eta zuekin diren bizidunen artean,**  
**gizaldiz gizaldi nik egiten dutan batasunaren ezaugarria:**  
13 **Nere ortzadarra ezartzen dut hedoietan,**  
**eta hura izanen da lurrarekin egin dutan batasunaren ezaugarri.**  
14 **Hedoiak lurraren gainean biltzen ditudanean,**  
**ortzadarra agertuko da hedoietan,**  
15 **eta orroituko naiz zuekin eta bizidun guziekin dutan batasunaz,**  
**eta ez da izanen gehiago bizidunak suntsituko dituen uholderik.”**

Uholde famatu hortaz bi kontaera badira. Bat Bibliak kondatzen duena Krixto aitzineko 1000 eta 500 urte artean idatzia. Bertzea, 1600 urte gutienez Kristo aitzinekoa da, Babiloniarrek idatzia. Bi kondairak berdintsuak dira.

Liferentziak hauek dira : Babiloniarren kondairan jainkoak aseak dira beren plazerrarentzat kreatu zituzten gizakiez. Bibliaren arabera Jainkoak ez ditu gizakiak bere jostagailutako kreatu. Beren bekatuen gatik ditu Jainkoak zigortzen. Noek du bakarrik Jainkoaren urrikalmendua ardietsiko. Hemen gizona erresponsable den norbait bezala erakutsia da. Hobengabeak ez dira bertzeekin batean itoko.

Halaber, bertze kondairan ez bezala, Noe lur huntako gizon bat gelditzen da. Eta hunekin Jainkoak bere batasuna erreberitzen du. Batasun hitza, hemen, bortzetan ekarria da. Jainkoak Adam-entzat eta Noerentzat hitz berak derabiltza : “ *Egizue ume, ugaldue eta bete zazue lurra eta izan haren nagusi..* “ ( Has 1,28). Jainkoak dio batasun hori gizarte guziarentzat dela : “ *Batasuna egiten dut nik zuekin...eta zuekin ditzuzuen bizidun guziekin.* “ Noe Abrahamen aitzinekoa da eta ez da judua.

Azpimarra dezagun ere ortzadarraren itxura, zerua eta lurra elkarri josten dituen itxura.

**Salmoa 24**

**Leloa : Bideak, Jauna, denak dituzu**  
**Egia eta urrikalmendu.**

**Zure bideak erakuts, Jauna, otoi, neri:**  
**Emazu ere xendren berri.**  
**Zure egia igor zadazu aintzindari,**  
**Dena bainago beti zuri.**

**Zer amodio duzun guretzat orroit, Jauna,  
Zer sekulako bihotz ona.  
Ez gogoan har nere gazteko bekatuak,  
Nere gaitz ezin ukatuak.**

**Ona da ona eta zuzena Jainko Jauna:  
Harek xuxentzen makur dena.  
Apalak ditu zuzen zuzenik joanarazten,  
Beren bidean ibil ditén.**

*„Zure bideak erakuts, Jauna, otoi, neri:  
Emazu ere xendren berri.“*

Hori dioena, segur, bekatoros bat da, bide xuxenean errexki egoiten ez dena.

Garizuma hor izanez, gure bihozberritzearen bideak zein diren Izai profetaren pasaia hunek ederki adierazten du : “ *Ez ote da hau maite dutan barura: zuzen-kontrako kateen haustea eta uztarri-uhalen laxatzea, zapalduen libratzea...gose denari zeure ogitik emaita eta aterberik ez duen behartsua etxean hartzea, biluzik dagona janzteia eta zure gizakideari laguntzarik ez ukatzea.* “ (Is 58, 6-8)

“*Zer amodio duzun guretzat orroit, Jauna, zer sekulako bihotz ona...*“ Jainkoa amodio dela, testamendu zaharrak ere hori aldarrikatzen du. Orroit Jaunak zer erran zion Moisi : “*Moisen aitzinetik iragan zen oihu eginez: Jauna! Jauna! Jainko bihotzbera eta urrikalkorra, berant-haserre, onginahiz eta leialtasunez betea...*“ (Jal 34,6)

## **Bigarren irakurgaia**

*( Bataioko urak bekatutik salbatzen )*

**Jondoni Petriren lehen epixtolatik 3, 18-22**

- Haurrideak,**
- 18 Kristo bekatuengatik hil zen, behin betiko,  
hobengabea hobendunengatik,  
zuek Jainkoarengat eremaiteko.  
Bere gorputzean hil zuten, izpirituan bizirat itzuli zen.**
- 19 Hola joan zen bere mezuaren hots egitera preso zaudeneri.**
- 20 Horiek lehen sinesgogor izan ziren,  
Jainkoak pazientzia luze zuen garaian,  
Noek untzia egin zuenean.  
Untzi hortan batzu bakarrik, zortzi lagun orotarot,  
izan ziren urean barna salbatuak.**
- 21 Delako ura, orai zuek salbatzen zaituzten bataioaren itxura zen.  
Bataioa ez da gorputzeko zikinaren garbitzea,  
bainan Jainkoari bere hitzaren emaita kontzientzia garbi batekin,  
Jesu Kristoren pizteari esker.**
- 22 Hura, zerurat iganik, Jainkoaren eskuinean dago,  
ainguru eta zeruko indar guziak baino gorago.**

*„ Kristo bekatuengatik hil zen...zuek Jainkoaren ganat eremaiteko.“* Eta nola, zein bidetarik? Bataioaren bidez, dio Petrik.

Uholdea aipatuz, apostoluak dio : *„delako ura, orai zuek salbatzen zaituzten bataioaren itxura zen.“* Eta zer da bataioa ? *„Jainkoari bere hitzaren emaita kontzientzia garbi batekin.“*

„Noek untzia egin zuenean...Untzi hortan, batzu bakarrik, zortzi lagun orotarot, izan ziren urean barna salbatuak.“ Zortzi zenbakia kreazone berriaren zinboloa zen testamendu zaharrean bai eta ere salbamendua gizarte guziarentzat zela erran nahi zuen. ( Zortzi horiek zirelarik Noe eta haren emaztea eta haukien hiru haurren bikoteak).

Bataio harriak, ainitzetan, zortzi alderditakoak dira, eta hor ikusten da zer erran nahi duen horrek.

Ahatik kreazone berria ez da Noerekin hasten bainan bai Kristoren piztearekin.

## Ebanjelioa

*Jesu Kristo guri mintza, argi gure bihotza!*

*Ez da ogiz bakarrik bizi gizona,*

*Bainan Jainkoaren ahotik jalitzen den hitz oroz.*

### **Jesu Kristoren Ebanjelioa san Marken liburutik 1, 12-15**

**Jesusek Joanesen bataioa hartua zuen.**

**12 Berehala, Izpirituak basamorturat joanarazi zuen.**

**13 Eta berrogoi egunez egon zen basamortuan,  
Satanek tentatzen zuela.**

**Basabereen artean bizi zen, eta aingeruak zituen zerbitzari.**

**14 Joanes Bataiatzailea preso sartua izan zelarik,  
Jesus Galilearat joan zen,**

**Jainkoaren Berri Ona hots egiten zuela, erranez:**

**15 “ Betea da denbora, eta hurbildua Jainkoaren erreinua.  
Bihozberri zaitezte, eta sinets Berri Ona.”**

Urte guzietz, garizumako lehen igandean, Jesusen tentazioneen ebanjelioa irakurtzen da. Hemen Markek ez dauku salatzen zer zen Jesusen tentazione hori.

Pentsatzeko da ahatik, Jesus gizon izanez, haukien tentazionen antzako zerbait zitaikela. Jesus gizon bat zen eta misione bat bazuen betetzeko, bere Aitak eman misionea. Jainkoaren asmoak ez gizonen asmoen idurikoak izanez, bere Aitari leial egoiteko Jesusek behar izan zuen bere bizian gizoneri ihardoki.

Bere bizi publikoa hasi zuenetik, bere etxeakoak izan ditu traba.“ *Jesus etxerat itzuli zen. Berriz ere halako jendaldea bildu zen nun jateko arterik ere ez baitzuten Jesusek eta dizipuluek. Hori jakitearekin, Jesusen etxeakoak hartaz jabetzerat etorri ziren, erraiten zuten “ez da bere baitan“.* (Mk 3, 21-22)

Bere apostolueri erraiten diotenean haren bizia nola bururatuko den, Petri jazartzen zaio erranez ez dela holakorik gertatuko. Apostoluak ez zauden gisa hortako Mesias baten beha, bainan Izrael erromatarren aztaparretarik libratuko zuen Mesias bat zuten beren esperantza.

Azpimarratzeko da ere nola Jesusek nahi izan duen gibelka egin sofrikarioaren aitzinean  
“ *Ahal bada nitarik urrunt kalitza hori, Aita!*“

Jesusi ere gusta zaio bere Aitaren nahia egitea.